

# ZALDIBIAKO ERAIKIN PUBLIKOEN GAINEKO EKINTZA PLANA PARTE HARTZEAREN IKUSPEGITIK

## 1. TESTUINGURUA:

*Zaldibiaren etorkizuna* prozesu parte hartzailean herri antolamendua eta azpiegituren erabilerak berrantolatzeko eta txukuntzeko iritzi, ideia eta adostasunak landu ziren. Horietan oinarrituz, Udalak “Eraikin Publikoen gaineko Ekintza Plana” sortu du eta bide-orri ezberdinak proposatu ditu Zaldibiaren etorkizunean beharrezko diren ekipamendu publikoak berritzeko. Dokumentu horretan esku hartze publiko bakoitzaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoaren azterketak biltzen dira.

Planak herritarren partaidetza sustatzeko aukera ezberdinak sortzen ditu, bai plan osoaren inguruan ekarpenak jasotzeko, bai zaldibiarrak esku hartze bakoitzaren diseinuan barneratzeko. Aldiz, une honetan ez da ziurtasun ekonomiko handirik bertan bildutako ekintza horien guztien finantziario bideen inguruan. Hain zuzen, proiektuak kanpotik datozen diru-iturrien beharra du, bereziki, proiektuak eskatuko lituzkeen baliabide ekonomikoak eta Udalaren inbertsionarako ahalmenari arreta jartzen badiegu.

Planak herritarren partaidetzarako aukerak eskaintzen dituen arren, ezinbestean, kontuan hartu behar dira proiektua beraren ziurgabetasun ekonomikoa, eta horrek prozesuan erabakitakoak aurrera eramateko sortuko lituzkeen arazoak. Izan ere, herritarren partaidetza prozesuetan garrantzitsua da emaitza zehatz, ikusgarri eta neurgarriak izatea; nolabait, hausnarketa antzuak ekidin eta lotura argia izatea erabakia eta ekintzaren artean. Aitzitik, ezinbestekoa da herritarrek bertan ahalik eta zeresan handiena izatea, Zaldibiako herri-antolamendua eta herritarren bizimodua baldintzatuko duen heinean.

Hori dela eta, jarraian agertzen den proposamenak *Zaldibiaren etorkizuna* prozesu parte hartzailearen eta finantziabide berriak lortu arteko bidea jorratu nahi du: herritarrekin batera lanean jarraitu ahal izateko oinarriak finkatzeko lan eginaz, eta parte hartzea ahalbidetzeko beharrezko baldintzak landuaz. 2016. urtean zehar garatuko den proposamen honetan lan egingo da: herritarren aniztasuna kontuan



hartzeko herri prozesu zabal baten oinarriak sortzeko; prozesuaren arrakastarako bermeak lortzeko; eta finantzabideak lortu ahala proiektu ezberdinen definizio parte hartzaileari ekiteko.

## 2. ABIAPUNTUA:

### 2.1. Konpromisoak:

Datozen orriotan aurkezten den proiektuaren diseinua Zaldibiako Udaleko bi talde politikoen artean adostu da, *EH Bildu* eta *Zaldibia Herrigintzanen* artean. Proposatutako proiektuaren bermeak hasiera-hasieratik lantzeko taldeok lan egingo dute:

- Herritarrek *Nolako Zaldibia nahi dugu?* parte-hartze prozesuan proposatuak eta *eraikin publikoen gaineko ekintza planean* jasotakoak ahalik eta modu parte hartzaileenean garatzeko.
- Herritarrak parte hartzera animatu eta xaxatzeko, eta etengabe herritarrei prozesuaren inguruan informazio egokia zabaltzeko.
- Proiektuaren konplexutasuna dela eta, bidean sortu daitezkeen oztopoei aurre egiteko.

Era berean, bi taldeek konpromisoa hartzen dute:

- Prozesua hauteskunde lehiatatik kanpo uzteko, eta ahalik eta herritar gehienek parte hartzea ahalbidetzeko.
- Eman beharreko urratsak, eztabaidagaiak eta erabakien eraginak gardentasunez azaltzeko lan egiteko, eta prozesuak sortuko dituen erabakiguneetako emaitzak errespetatzeko. Hain zuzen ere, lehen fase honetan talde eragilearen proposamena errespetatzeko.
- Talde biek prozesua jarraitzeko eta proiekturako finantzabide ezberdinak bilatu zein horien kudeaketa euren gain hartzeko.

Jarraian aurkezten den proiektuak beraz, bere lehen urratsetik, herri proiektu izateko duen bokazioa aldarrikatzen du, eta horren mesederako lanean jartzen ditu bi talde politikook.

## 2.2. Bi prozesu parte hartzaileen arteko lotunea: errekonozimendua, erabaki informatua eta plazako aterpeari konponbidea.

*Zaldibiaren etorkizuna* prozesu parte hartzailean biharko Zaldibiari buruzko iritziak jasotzeaz gain, Zaldibiako Udalak konpromiso zehatzak hartu zituen beregain. Horien artean azpimarragarriena izan zen Plazako frontoiari estalkia jartzeko erabaki parte hartua. Estalkiaren proiektua egina badago ere, bere exekuzioan aurreikusi gabeko zailtasunak izan dira, eta horrek nabarmen atzeratu du plazan aterpe bat eraikitzea. Udal taldeetako kideek gaia bertatik bertara ezagutzen badute ere, ez zaie herritarrei atzerapenen zergatiaren berri eman eta ez dute ordezeko aukerarik ote den jakiteko betarik izan. “Eraikin Publikoen gaineko Ekintza Plana” bera ere ez dute ezagutzen.

Hori horrela, ezinbestekoa izango da 2016. urtean ondorengo lan ildoak jorratzea prozesu parte hartzaile berria oinarri sendoen gainean eraiki nahi bada:

- Lehen prozesu parte hartzailean hartutako konpromisoak ez betetzearen zergatiaren berri ematea herritarrei.
- Aurretik egindako lana balioan jartzea.
- “Eraikin Publikoen gaineko Ekintza Plana” ezagutaraztea, hari ekarpenak egiteko aukera eskaini, behar berriak antzeman eta datozen urtetarako planifikazio bat adostea.
- Plazako aterpeari konponbide adostu bat ematea, erabakia hartzeko ahalik eta informazio gardenena eskainiaz eta aukera bakoitzaren eraginak mahai gainean jarritz.

Lan-ildo horiek guztiak landuz *Zaldibiaren etorkizuna* prozesu parte hartzailearen eta “*Eraikin Publikoen gaineko Ekintza Planaren*” inguruan sortuko den parte hartze prozesuaren arteko loturak landuko dira; izan ere, proiektu honek bata eta bestearen artean zentzuzko lotune bat izan nahi du.

### 3. PARTE HARTZE PROZESURAKO OINARRIAK SORTZEN: 2016. urterako PROIEKTUA

2016. urterako proposatzen den proiektuak ondorengo urratsak aurreikusten ditu:



#### 1. Prozesu parte hartzailearen gaineko adostasun politikoa:

Talde politikoen arteko bi bileratan landu dira proiektuaren diseinua eta horren gaineko adostasun politikoa, 2016. urteko bigarren hiruhilekoan. Bilerak Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuak prestatu eta dinamizatu ditu. Horien emaitza da, aipatu moduan, dokumentu honetan jasotzen den proiektua.

#### 2. Talde eragilea izendatu, sortu eta proposamena aurkeztu:

“Eraikin publikoen gaineko Ekintza Planaren” inguruko prozesu parte hartzailearen konplexutasuna aintzat hartuta eta aurreko prozesu parte hartzailetik sortutako esku hartzeen garapenean izandako zailtasun zein atzerapenak kontuan izanik, ezinbestekotzat jo da herritarrez osatutako talde eragile bat sortzea.

Talde horrek lehen epealdi honetan, 2016. urteko abendura bitartean, ondorengo lanak izango ditu:

- Informazioa zuzenean jaso.
- Finantziak lortzeko egiten ari den lana jarraitu.
- Bi prozesu parte hartzaileen arteko lotura eta jarraipena ahalbidetzeko proposamena landu: Plazako aterpearen gaiari konponbidea emango dio.
- Prozesuaren planifikazioa landu.



- Proiektu ezberdinen inguruan haren iritzia eman.
- Bidean sortu daitezkeen aukera parte hartzaileak identifikatu eta baliaitzeko proposamena egin. Sor daitezkeen lan-talde ezberdinen jarraipen estua egin.
- Azulana edota ekimen parte hartzaileak abiatzeko proposamena egin.

Talde horretan biltzen diren herritarrak Zaldibiaren aniztasunaren adierazgarri izatea proposatzen da, era berean, herriko partaidetza dinamizatu eta animatzeko interes berezia duten herritarrak izatea.

Talde eragilea sortzeko herritar jakinei egingo zaie gonbidapena, halaber, proiektuan parte hartzeko interesa izan dezaketen herritarrei parte hartzeko aukera eskainiko zaie.

Talde eragilearen lehen bileran ondorengo gaiak landuko dira:

- *Nolako Zaldibia nahi dugu?* Parte hartze prozesuaren eta orain egin nahi denaren berri jaso.
- Talde eragilearen funtzioak ezagutu.
- Prozesu parte hartzaile baten eta besteen artean egondako etenaldia ezagutu, eta Plazako Aterpeari konponbidea emateko premiaren berri izan. Eztabaida horretan talde eragileak izango duen papera argitu.
- Partaideek eskatzen zaien konpromisoa ezagutuko dute.

**TALDE ERAGILEA  
SORTU**

### **3. Talde eragileak plazako aterpeari irtenbidea ematea eta hori Udala Eraikinen Ekintza Planean txertatzea.**

Talde eragilea sortu ondoren talde horren lehen lana plazako aterpeari irtenbidea ematea izango da. Horretarako, taldekideek aterpea egiteko aukerak zeintzuk diren ezagutuko dute, eta aukera bakoitzaren bideragarritasun tekniko zein ekonomikoaren berri jasoko dute. Erabaki bat edo beste hartzearen eraginak zeintzuk diren aztertuko du taldeak, azkenik, plazako aterpeari konponbidea emateko proposamen zehatz bat eginaz. Proposamen hori “Eraikin publikoen gaineko Ekintza Planean” txertatuko da.

**TALDE ERAGILEA:  
PLAZAKO ATERPEA**

**PROPOSAMENA  
PLANEAN TXERTATU**



#### 4. Herritarrekin Eraikin publikoen gaineko Ekintza Planaren kontrastea.

Talde eragileak egindako lanaren ondoren proposatzen da herri mailako dinamika bat abian jartzea herritar orok ekarpenak egiteko aukera izan dezan. Herritarrekin egin behar den egitasmoa asmatzeko dagoen arren, sortuko den dinamikak:

##### HERRI DINAMIKA:

- Orain arte egindako lanak zeintzuk izan diren azaldu eta emandako urratsen zergatia azaldu beharko du.
- Herritarrek plana bertatik bertara ezagutzeko eta hari ekarpenak egiteko aukera eskaini beharko du.
- Era berean, horren inguruan egiten den gogoetak behar berriak identifikatzeko aukera eskaini behar du.
- Talde sustatzailean parte hartzeko interesa duten herritarrei aukera eskaini beharko lieke.

#### 5. Talde eragileak planifikazio adostu bat sortuko du.

Talde eragileak aztertu egin beharko ditu herri dinamikan jasotako gogoetak eta herritarrek egindako ekarpenak. Era berean, finantziario bidean inguruko informazioa jasoko du. Informazio horrekin guztiarekin planifikazio bat egingo du talde eragileak, eta bertan jasoko ditu:

- Eraikin publikoen gaineko Ekintza Plana aurrera eramateko planifikazio orokor bat.
- 2017. urtean garatu beharreko ekintzen parte hartzaileen proposamena, ahalik eta herritar anitzenak inplikatzeko. Jendeari ekarpenak egiteko aukera eskainiz, baina herritarrak ez errez eta ilusioa mantentzeko saiakera eginaz.

##### TALDE ERAGILEAK PLANIFIKAZIOA

#### Informazioa, komunikazioa eta gardentasuna

Proiektu honetan, hasiera-hasieratik, herritarrei proiektuaren inguruko informazioa helarazteko bideak aztertuko dira. Era berean, prozesuan zehar sortzen diren guneetan sortutako ezagutza akta ezberdinetan jasoko da, eta herritarren eskura jarriko da gardentasunaren mesedetan.

### **Genero ikuspegia**

Proiektuan zehar genero ikuspegia txertatzeko ahalegin berezia egingo da. Bestek beste, emakume ezberdinen parte hartzea ahalbidetzeko saiakera egingo da; saioak pentsatzerakoan parte hartzeko modu hegemonikoen ordeztu aukerak proposatuko dira; bereziki, parte hartzeko zailtasun gehien izan ditzaketenengan pentsatu eta baliabideak eskainiko dira.

### **Proiektuaren dinamizazioa:**

Proiektua garatu ahal izateko GFAko Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuko teknikariren laguntza izango da. Horien lana bide-laguntza eskaintzea izango da Udalaren barruan eman beharreko urratsei dagokienez.

Proiektua dinamizatu ahal izateko,aldiz, aholkularitza baten laguntza izatea aurreikusten da. Haren lana talde eragilearen saioak eta herri dinamiken diseinu metodologikoa egitea eta horien garapena izango da.

### **Kostua:**

Zaldibiako Udalak 6000 € jarriko ditu aholkularitza gastuak ordaintzeko.

# TALDE POLITIKOEN LAN-TALDEA: FINANTZABIDEAK LORTZEA

## HERRITARREI INFORMAZIO JARRAI ETA GARDENA

